

B2 MAILA

3. ZATIA

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Materiala eman (argazkien orria).

- Ikasleei fitxak eman eta zer egin behar duten azaldu (elkarri begira egongo dira eta irakaslea pixka bat atzerago jarriko da).
- Fitxak aurrean dituztela, minutu erdi bat utzi pixka bat pentsatzeko.

Ikasleek jardun bitartean.

- Ikasleei egiten utzi, baina hizketan pasatzen duten denbora neurtu.
- Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu.
- Behar izanez gero, beheko galdera osagarriak balia ditzakezu.

172. ARGAZKIA:

Zer egin lehenengo urteurrenean?

Laster beteko duzue urtebete elkarrekin bizitzen hasi zinetenetik. Hasieratik moldatu zarete oso ondo, eta horregatik, urteurrena modu berezian ospatzea erabaki duzue. Hala ere, partekatzen duzuen etxebizitza zerbait berritzen ari zaretenez, ez duzue diru asko gastatu nahi. Fitxan urteurrena ospatzeko hainbat ideia dituzue. Zein aukeratuko zenukete eta zein ez? Zergatik? **Bion artean elkarrizketa bat osatu behar duzue, eta horretarako argazkien bidez adierazitako ideiak edo zuei bururatzen zaizkizuenak erabil ditzakezue. Egin proposamenak eta eman aldeko eta kontrako argudioak.**

GALDERA OSAGARRIAK

- 1.- Zein da unerik egokiena gurasoen etxea utzi eta norbaitekin bizitzen hasteko?
- 2.- Erraza da zuen ustez norbaitekin bizitzen hastea? Zergatik?
- 3.- Zer iruditzen zaizue horrelako egunak ospatzea?



Zer egin lehenengo urteurrenean?

